

## ***Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala “eko” ibilgailuentzako eta zero emisioentzako***

### **1. artikulua. Izaera eta funtsa.**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa zerga zuzena da, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean (EDL 1995/13311) derrigorrean ezarria, eta ordenantza fiskal honek arautua. Ordenantza honek aipatu Foru Arauaren 159. eta 166. artikuluek aurreikusitakoari jarraitzen dio.

### **2. artikulua. Hobariak.**

1. Zergaren kuotari hobari hauek aplikatuko zaizkio, Foru lege horren 162.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

- a) Emisiorik gabeko ibilgailuentzako % 100eko hobaria: BEV bateria elektrikoa duten ibilgailu elektrikoak, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriei (PHEV) baldin eta gutxienez 40 kilometroko autonomia badute, hidrogeno-pilako ibilgailuei edo Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak horrela sailkatzen dituenen.
- b) % 50eko hobaria “ECO” ibilgailuentzat: 40 kilometro baino gutxiagoko autonomia duten ibilgailu hibrido ez-entxufagarriei, ibilgailu hibrido entxufagarriei (HEV), gas naturalez propulsatutako ibilgailuei, gas natural bidezko ibilgailuei (GNC eta GNL), petrolioaren gas likidotua (GLP) erabiltzen dutenak, edo Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak horrela sailkatzen dituenen.

2. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak eskatu beharrekoak dira, eta interesatuek eskaria luzatu beharko diote Udalari, baldin eta derrigortuak dauden baldintzak aldeztatik betetzen dituela egiaztatzerik badu. Horretarako, eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- b) Zirkulazio-baimenaren kopia.
- c) Ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelaren kopia; zeinean, hala bada, ibilgailua egokitu izan zela eta erreforma egin zitzaion data azaltzen diren.

3. Hobari horiek lortu ahal izateko, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan erroldatuta egon behar dute, eta eskakizuna eginen dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazita. Hori guztia egiaztatuko dute azaldutakoa jasotzen duten agiriak aurkeztuz.

4. Jasotako hobariak baliatzeko, beharrezkoa izanen da Udalak alde aurretik onartzea, eta hurrengo zergalditik aurrera izanen ditu ondorioak. Aitzitik, matrikulazio berriko ibilgailuek 2 hilabeteko epea izanen dute Trafikoko Buruzagitzan alta ematen den egunetik aurrera, hobariak indarrean dagoen urtean ondorioak izan ditzala eskatzeko.

5. Halaber, hobariak jaso ahal izateko, eskatzaileak Galarko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izan beharko ditu eta hori ez betetzeak hobaria galtzea ekarriko du.

6. Hobariak lehenengo hiru ordainagiritan aplikatuko dira ibilgailua matrikulatzen den egunetik.